



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko martxoaren 31

41. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 68. artikulua aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeen autonomia errespetatuz, PAI-tik irteteko eskaera egiten duten ikastetxeei programatik irteteko prozesua erraztuta. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin ditzan hitz egiten diren lurraldearen zati batean edo lurralde osoan ofizialak ez diren hizkuntza berekiak ofizialak izateari dagokionez Diputatu Kongresuak 2021eko martxoaren 9an onetsitako erabakia eta gutxieneko akordioa. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lege baten bidez mugatu dezan etxebizitzaren alokairuaren prezioa. Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Elikagaien Segurtasunaren Ataleko lanpostuei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (11. or.).

—Galdera, herritarrentzat Oinarrizko Osasun Laguntza eskuragarri dagoela bermatzeko neurriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (12. or.).

—Galdera, Eutanasia arautzen duen Lege Organikoari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (13. or.).

- Galdera, Lizarran 2021eko urtarrilaren 19an gertatutako ijitoen aurkako kasuari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (13. or.).
- Galdera, COVIDaren txertatze-pasaporteari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpresengana hurbiltzeko darabilen estrategiari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Mutiloako instalazio berrietan mantenduko diren Refenako langileei eta egiturari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren garapen hobezinerako prozeduren eta estrategien prestakuntza-mintegiari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroan zenbait autobiatako trafikoaren gaineko datuei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 Planeko gordailu, itzulketak eta berrerabilera sistemari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, gezurren aurkako eta albiste egiaztatuen berri ematearen aldeko ekintza zuzeneko proposamen bat taxutzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, etxebizitza babestuen eroslehentasun-eskubideari buruzkoa. José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Agoitzen industria-lurzorua erosteari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Siemens Gamesaren Agoizko industria-instalazioei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoa zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari (Google tasa) eta finantza-transakzioen gaineko zergari (Tobin tasa) egokitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, eskola-mapa aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, 0-3 zikloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, espetxe-osasunaren eskumena hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Brexitak Erasmus programan dauzkan ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Bertizko Parke Naturaleko basoko pistei eta bideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 68. artikulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Ezkerra-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 68. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 152, 153. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 68. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamenaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarreko izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea, Erregelamenduko 152 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunekin (10-21/PRO-00006).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proposamena,
Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko
14/2004 Foru Legearen 68. artikulua
aldatzen duena**

HITZAURREA

Hona Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 68. artikulua testua:

“68. artikulua. Ustelkeria delituengatik ikertutakoak.

1. Kargu publiko hautatu batek edo izendapen libreko batek modu frogagarrian jakinez gero epaitegi edo auzitegi eskudun batek auto bat eman duela, ikertuaren egoera prozesalean edo egoera parekidean jartzen duena Kode Penal indardunaren 404.etik 444.era bitarteko artikuluetan edo 472.etik 509.era bitartekoetan aurreikusitako delituak ustez egiteagatik, ulertuko du berak karguan segitzea bateraezina dela herritarrei printzipio etikoaren indarrak eta instituzioen ospe ona babesteko beharraz eman behar zaien konfiantzarekin.

2. Horrela ulertuko du, halaber, izendapen libreko goi karguen kasuan, kargutik kentzeko ahalmena duenak”.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen V. titulua –Etika eta gardentasuna– berritasun modura sartu zen (64. artikulutik 68.era) maiztaren 17ko 6/2018 Foru Legearen bidez, zeinak honako foru lege hauek aldatu baitzituen: Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea; Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea.

68. artikulua horren idazketak interpretazio-ara-
zoak eragin ditu, eta egoera bidegabeen iturri izan
daiteke, bertan azaltzen diren zigor-prozesuen
korrelazioari dagokionez.

Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren
bidez, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995
Lege Organikoa aldatu zen. Aldaketa horrek, bes-
teak beste, egotziaren figura desagertzea ekarri
zuen.

Oso interesgarria da lege organiko horren
zioen azalpena –zehazki, aldaketa horren zioak–
aztertzea. Izan ere, honako hau esaten da bertan:

“Horregatik, Prozedura Kriminalaren Legearen
oraingo 118. artikulua —defentsa-eskubidea arau-
tzen duena— aldatzen da, eta argi eta zehazki
aitortzen da egintza zigorgarri bat gauzatu izana
egozten zaion pertsona orok egikaritu ahalko
duela bere defentsa-eskubidea, legean aurreikusitakoak
beste mugarik gabe, eta ikertutako egintza
zigorgarria egozten zaionetik zigorra azkendu
arteko denbora finkatzen da eskubide hori egikari-
tzeko denbora-tarte gisa. Defentsa-eskubidearen
oinarrizko edukia da askatasunez izendatutako
abokatu baten laguntza izatea, edo, halakorik
ezean, ofiziozko abokatu batena, zeinarekin
komunikatu eta elkarriketatu ahalko baita isilpe-
an, edozein momentutan, egintza zigorgarri bat
egozten zaion unetik; gainera, abokatu hori aurre-
an egongo da deklarazio guztietan eta gauzatzen
diren identifikazio- eta bekaldura-eginbideetan edo
egitateak berreraikitzeke eginbideetan”.

“Ikertu edo auzipetuaren eskubide guztiak hiz-
kera ulergarrian eta hartzailearen inguruabar per-
sonaletara egokituta jakinaraziko zaizkio, hau da,
adina, heldutasun-maila edo desgaitasuna kon-
tuan hartuta”.

“Helburu horrekin bildu zen Hizkera Juridiko-
aren Argitasunerako Batzordea, zeinen gomen-
dioak kontuan hartu baitziren lege honetako
arauak idazteko orduan. Batzordearen ondorioen
artean dago esandako hitzaren konnotazio negati-
boak eta estigmatizatzaileak ekidin behar direla,
eta hizkera zigor-arloko prozesuaren fase bakoit-
zean gertatzen den errealitatera egokitu behar
dela. Arrazoi horiek direla eta, egotzi hitzaren
ordez beste egokiago batzuk erabili behar dira,
hala nola ikertu eta auzipetu, prozesuaren fasea-
ren arabera. Erreformak egin ditu ondorio horiek.
Horrela, hitz horietako lehenengoak delitu batekin
duen erlazioagatik ikerketapean dagoen pertsona
identifikatzeko balioko du; auzipetu terminoarekin,
berriz, oro har, kausaren instrukzioa amaitu oste-
an, agintaritzak judizialak delitu-egitate jakin batean

parte hartu izana formalki egozten dion pertsona
izendatuko da”.

68. artikulua eragina dauka pertsona bat iker-
tuaren egoera prozesalean jartzen bada zigor pro-
zesu batean delitu zehatz batzuk direla-eta, baina
ikertuaren figura hori zigor kodean sartu zen esku-
bideak aitortzen dituen figura gisa; zehazki, defen-
tsarako eskubidea.

Gainera, inputatuaren figura ezin da ikertuaren
figuraren pare jarri, zeren eta inputatuarena bitan
bereizi da: ikertua eta auzipetua. Alegia, 68. arti-
kuluaren egungo idazketak ondorio negatiboak
dauzka pertsona batengan zigor-arloan bere esku-
bideak jakinarazten zaizkion une berean.

Egungo idazketaren beste arazoetako bat da
Prozedura Kriminalaren Legean ez dela argitzen
pertsona batek noiztik aitzina daukan ikertuaren
izaera; hortaz, 68. artikulua aplikazioak arazo-
ak sor ditzake, eta, beraz, segurtasun juridikoaren
izenean bidezkoa da zehaztea zigor prozesuaren
une bat, ez dezan irakurketa bat baino gehiago
egiteko biderik eman.

Egungo idazketa nahasgarria da eta irakurketa
bat baino gehiago egiteko bidea ematen du, baita
ikertuaren izaera duen pertsona batek dimisioa
eman beharri buruz ere; izan ere, honako hau
dio: “(...) ulertuko du berak karguan segitzea bate-
raezina dela herritarrei printzipio etikoen indarrak
eta instituzioen ospe ona babesteko beharraz
eman behar zaien konfiantzarekin”.

Azkenik, artikulua “ustelkeria” delituez hitz
egiten badu ere, zigor kodean ez dira hitzez hitz
aipatzen bertan ustelkeria delitu gisa jasotzen
direnak.

Herritarrek administrazio publikoekiko eta,
batez ere, politikarekiko duten konfiantza oso kal-
tetuta dagoen mundu honetan, egoki da eredu-
garritasuna ziurtatuko duten etika- nahiz osotasun-
jarrerak izatea.

Halere, azken urteotako esperientzia ikusita,
bidezkoa da artikulua hori berrikustea, segurtasun
juridiko handiagoa emateko eta balizko lege-haus-
te baten zantzu gehiago dauden une batera
geroratzeko, zigor prozesuan, haren ondorioak.
Hona aldaketak: tituluaren idazketa berria, non
jarrera-kode bat ezartzen baita, argi utzita proze-
suaren zein unetan sortzen diren ondorioak, zer
delituk eragiten duten hori abiaraztea, kargua utzi
beharra (ez soilik kargua uzteko borondatea), eta,
azkenik, baina ez garrantzi txikiagoa duelako,
epeak.

Artikulu bakarra. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 68. artikulua aldatzen da. Hona testua:

“68. artikulua. Jarrera-kodea, administrazio publikoaren aurkako delituak direla-eta.

1. Goi-kargudun bati edo izendapen askeko bati Zigor Kodean aurreikusitako Administrazio Publikoaren aurkako delituetako bat ustez egin izanagatik ahozko judizioaren hasiera edo behin-behineko espetxeratzearen kautelazko neurria jakinarazten zaion unean, ulertuko du berak karguan segitzea bateraezina dela herritarrei printzipio etikoen indarraz eta instituzioen ospe ona

babesteko beharraz eman behar zaien konfiantzarekin, eta, hortaz, bere karguari uko egin beharko dio.

2. Uko egite hori berehala aurkeztu beharko dio kargurako izendatu zuenari.

3. Uko egiten ez badio, izendatu zuen pertsonak hiru egun naturaleko epean kendu beharko du kargutik”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeen autonomia errespetatuz, PAItik irteteko eskaera egiten duten ikastetxeei programatik irteteko prozesua erraztuta.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ikastetxeen autonomia errespetatuz, PAItik irteteko eskaera egiten duten ikastetxeei programatik irteteko prozesua erraztuta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeen autonomia errespetatuz, hala eskatzen dutenei Ingelesez Ikasteko Programatik irteteko prozesua erraztuta.

Castejongo Dos de Mayo HLHIPko hezkuntza-komunitateak bigarren bezala eskatu du aurten PAI-Ingelesez Ikasteko Programatik ateratzea, horretarako aski justifikatutako irteera plan bat prestatuta. Hain zuzen, joan den urtean era horretako plan bat ez egotea erabili zuen Hezkuntza Departamentuak argudio gisa eskaera hori ez baimentzeko.

Bai iragan ikasturtean, bai honetan ere, eskaera hori babestu dute hezkuntza-erkidegoak, klustroaren gehiengoak nahiz Eskola Batzorde osoak. Izan ere, ikastetxeko Eskola Batzordearen ordezkari bat Parlamentuan izan zen programatik irteteko arrazoiak azaltzeko, hezkuntza eta pedagogia irizpideetan soilik oinarrituta. Ikastetxearen hezkuntza-errealitatea zertan den azaldu zuten, bai eta bertako ikasleen ezaugarriak ere (%43k hezkuntza-premia bereziak dauzka). Gainera, ikastetxeko ikasle eta familien ehuneko handi bat etorkina da, eta ikastetxeak berandu eskolatutako ikasle ugari hartzen ditu ikasturtean zehar.

Agerraldi hartan azaldu zuten bezala, urteotan argi ikusi dute “ikasgelako erritmoan atzerapen handia eta ikasgaietako edukietan sinplifikazio handia” gertatzen direla. Hala esan ziguten: “ikasleek gaitasun gutxiago lortzen dute ingelesez irakasten diren ikasgaietan, eduki konplexuak ingelesez ulertzeko eta barneratzeko egin behar duten hizkuntza-ahalegina egundokoa baita”.

Haien esanetan, “ingeleseko barne-ebaluazioetan ez da ikusten PAIko ikasleen errendimendu akademikoa hobea denik, ingelesez ikasteko programan ikasi ez zuten ikasleek ikasturte horietan beretan ingeleseko ikasgaietan lortutako emaitzen aldean”. Alegia, azken sei ikasturteotan argi geratu da programak ez duela “funtzionatzen ikastetxean”.

Ikastetxeak, araudiak ezarritakoari jarraikiz, programa amaiarazteko egutegi bat aurkeztu zuen PAItik irteteko taxutu zuen plangintzan. Hezkuntza Departamentuak, halere, ikastetxearen eskaera onartu aitzin, egutegia zuzentzeko eskatu zion ikastetxeari, eta ohartarazi zion eskariak ez zuela betetzen Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 30eko 147/2016 Foru Aginduko 11.2 artikuluan ezarritako baldintzetako bat, honako hau

hain zuzen ere: “ikastetxeak programen jarraitutasuna bermatu beharko du ezarrita dagoen ikasmailetan”. Horren ondorioz, ingelesez ikasteko programa 8 ikasturtez mantenduko da ikastetxean, erabat amaiarazi arte. Egoera behartua, hezkuntza-erkidegoaren borondatearen aurkakoa, eta ikastetxearen erabakiaren ezarpena oztopen duena.

Gure ustez, ez litzateke arauaren irakurketa hain murriztailea egin beharko, izan ere anbigua gerta baitaiteke betiere, eta beharrezkoa da araua aldatzeko aukera aztertzea, programatik irten nahi duten eta baldintzak betetzen dituzten ikastetxeei irteera errazteko eta prozesua ez oztopenzako.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxeen erabakiak errespetatu ditzan eta horien autonomia sustatu dezan, PAltik irteerako eskaera egin eta hezkuntza-

erkidegoaren babesa duten ikastetxeei programatik irteerako prozesua erraztea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 147/2016 Foru Agindua alda dezan ikastetxeen borondatea aldeztuko, halako moduan non ez den irakurketa murriztaile egin ahal izanen PAltik irten nahi duten ikastetxeak programan 8 ikasturtez mantentzeko, erabat amaiarazi arte.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan sei hilabeteko epean, ikastetxe publikoetan PAI ezartzeari eta horrek aniztasunarekiko arretan duen eraginari buruzkoa, bereziki etorkinen kasuan eta hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleen kasuan. Azterlana taxutzeko, aintzat hartuko ditu ingelesez ikasteko programako ikastetxeak, guraso elkarteak eta Eskola Kontseilua.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin ditzan hitz egiten diren lurraldearen zati batean edo lurralde osoan ofizialak ez diren hizkuntza berekiak ofizialak izateari dagokionez Diputatuen Kongresuak 2021eko martxoaren 9an onetsitako erabakia eta gutxienerako akordioa.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere egin ditzan hitz egiten diren lurraldearen zati batean edo lurralde osoan ofizialak ez diren hizkuntza bere-

kiak ofizialak izateari dagokionez Diputatuen Kongresuak 2021eko martxoaren 9an onetsitako erabakia eta gutxienerako akordioa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan martxoaren 9an, zenbait taldek Diputatuen Kongresuan aurkeztutako legez besteko proposamen baten hiru puntu onetsi ziren. Proposamenerako oinarri hartu zuten Hizkuntza aniztasuna manifestua –askatasuna, berdintasuna eta demokrazia–, zeina ELEN-Hizkuntz aniztasunaren aldeko Europako Sareak taxutu eta hizkuntza gutxituen defentsan lan egiten duten Espainiako estatuko zenbait elkartek sinatu baitzuten 2019an. Aragoieraren, euskararen, asturieraren, galegoaren eta katalanaren alde lan egiten duten hamar elkarte dira: Nogará, Kontseilua, Iniciativa Po Asturianu, A Mesa Pola Normalización Lingüística, Acció Cultural del País Valencià, Ciemen, Escola Valenciana, Ómnium eta Plataforma per la Llengua.

Ekimenean azaltzen zen beharrezkoa dela Espainiako estatuak berretsi dituen nazioarteko akordioak eta tratatuak bete ditzala –esaterako, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna–, bai eta gizarte zibilak, nazioartean onespina duten entitateek eta adituek adostutako dokumentuak ere –esaterako, Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala edo Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa–. Orobat esaten zen giza eskubideen, aniztasunaren eta pluralismoaren balioetan oinarritutako estatu demokratiko batean herritar guztientzako

justizia, askatasuna eta berdintasuna bermatu behar direla.

Horregatik guztiagatik, zazpi puntuko erabaki proposamen bat aurkeztu zen, eta horietako hiru onetsi ziren. Gutxieneko adostasun hori oinarri, talde parlamentariok honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Diputatuen Kongresuak onetsitako erabakia eta gutxieneko akordioa, eta atxiki egiten zaie honako konpromiso hauei:

- Estatutuen erreformak bultzatu eta babestea, hitz egiten diren lurraldearen zati batean edo lurralde osoan ofizialak ez diren hizkuntza berekiak ofizialak izan daitezen.

- Hizkuntza eremu bereko lurraldeen artean hizkuntza ezberdinak erabili ahal izatea administrazioan, administrazio-mugen barruan nahiz kanpoan, trabarik gabe eta hizkuntza eremu horien barruan batak bestearen komunikabideak jasotzeko akordioak sinatuta.

- Egiatzko errespetua, eskubideetan nahiz betebeharretan eta Estatuaren botere guztien jarduketara konprometituan oinarrituta.

2. Nafarroako Parlamentuak hartu beharreko neurriak hartuko ditu konpromiso horiek bete daitezen, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du beste horrenbeste egin dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Foru parlamentariak: Jabi Arakama, Bakartxo Ruiz, Ainhoa Aznárez eta Marisa De Simón

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da lege baten bidez mugatu dezan etxebizitzaren alokairuaren prezioa.

NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita lege baten bidez mugatu dezan etxebizitzaren alokairuaren prezioa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioaren eta foru parlamentarien elkartearen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

PSOEk eta Unidas Podemos koalizioak sinatutako programa-akordioak, zeinetan oinarritzen baita Estatuan egun dagoen Gobernuak, zenbait konpromiso politiko biltzen zituen; besteak beste, etxebizitzaren alokairuaren prezioaren erregulazioa. Akordio horrek honako hau zioen, hitzez hitz:

«2.9.3.- Alokairuaren abusuzko igoerak geldiaraziko ditugu. Horretarako:

– Tentsiopeko merkatuko eremu zehatzetan alokairuaren prezioen abusuzko igoerak mugatzeko beharrezkoak diren arauak bultzatuko dira. Autonomia erkidegoei edota udalei esku emanen zaie beren prezioen indizea ezarri ahal izan dezaten metodologia objektibo baten arabera eta aldizkako berrikuspen bati lotuta, Sustapen Ministerioa garatzen ari den Etxebizitzaren Alokairurako Prezioen Erreferentzia-indizeen Estatuko Sistematik abiatuta. Kontuan hartuko dira Alokairuaren Prezioen Erreferentzia-sistema bat zehaztuta daukaten autonomia erkidegoek egindako aurrerabide-

ak, horiek abian jartzea ahalbidetuko duten mekanismoak bizkortuta.

– Udalek, egoki iritziz gero, tentsiopeko merkatu deklaratu ahalko dute hiri-eremu bat –modu objektiboan eta irizpide teknikoetan oinarrituta, aldi baterako eta salbuespenez–, baldin eta ohiko etxebizitzaren alokairu-errentaren abusuzko igoera iraunkorra gertatu bada, bertan bizi direnei eragozten diena etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratzea eta baliatzea, eta horrenbestez, etxebizitza bat izateko eskubidea baliatzea.

– Arestiko paragrafoetan aipatutako erreferentzia-indizeen helburua da udalek edota autonomia erkidegoek, egoki iritziz gero, alokairuaren prezioaren abusuzko igoerak erregulatu ahal izatea alde aurretik tentsiopeko deklaratuak eremuetan, eta aldi berean ekiditea alokairuko etxebizitzaren eskaintzaren uzkurduaren balizko ondorioak».

Orain dela gutxi jakin dugunez, Garraio, Mugi-kortasun eta Hiri Agendaren Ministerioak pizgarri fiskalak aplikatzea besterik ez du gogoan alokairuaren prezioak jaisten saiatzeko.

Neurri hori aplikatuko balitz, koalizio-gobernuko parte sozialistak akordioa nabarmen urratuko luke eta higiezinaren patronalaren proposamenak onartzea ekarriko luke, zeren eta patronal horrek etxebizitza-edukitzaile handien mesederako eredu baten aldeko apustu egiten baitu, alokairuak jaitziaraziko luketen etxebizitza hutsik daudenak azaleratzeko betebeharrak ezarri ordez.

Gure ustez, proposamen horrek, gobernu-akordioa urratzeaz gain, ez baitu alokairuaren prezioen erregulazioa jasotzen, erabat antisoziala ere bada, sustatu egiten baitu gehien daukanak eta higiezinaren burbuila puzean lagundu duenak etekin handiena ateratzea guztion diruarekin ematen diren pizgarri horiei. Proposamen horrek zuzenean egiten die mesede espekulatuzaileei, eta ez higiezinaren espekulazioa pairatzen ari direnei.

Gure irudiko, halako neurriek honako hau dakarte: zenbat eta handiagoa izan alokairuaren kostua eta zenbat eta etxebizitza gehiago eduki jabe batek, orduan eta handiagoa izanen da lortu ahalko duen onura fiskala. Proposamenaren emaitza maltzurra izan daiteke azkenean, bai eta programa-akordioan jasotzen den konpromisoaren espirituaren nabarmen aukakoa ere.

Iragarritako proposamenak ez du jasotzen Blackstone bezalako enpresak eratu dituzten edukitzaile handiei eta gainontzeko funts putreei zuzenduriko neurririk, nahiz eta horiek diren etxebizitzaren espekulazioaren egiazko arduradunak; halatan, horiek abusuzko alokairuak kobratzen jarraitu ahal izanen dute, orain arte bezala, etxebizitzarako eskubidearekin espekulatzen jarraitu bidenabar.

Horri guztiari aurre egiteko, uste dugu Etxebizitzari buruzko Legeak betekizunak ezarri beharko lituzkeela funts espekulatzailerik horientzat, haien ardura zuzena baita Espainian alokairuaren prezioak igotzea eta burbuila bat artifizialki sortzea

hutsik dauden etxebizitzak atxikitzearen eta beste tresna batzuen bidez.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua prematzen du lege baten bidez mugatu dezan etxebizitzaren alokairuaren prezioa, higiezi-merkatuko egungo espekulazioarekin bukatzeko.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Foru parlamentariak: Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Elikagaien Segurtasunaren Ataleko lanpostuei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren Elikagaien Segurtasunaren Ataleko lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran erantzun dezan:

2020ko abenduan erretiroa hartu zuen Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Elikagaien Segurtasuneko osasuneko goi mailako teknikari batek (A mailakoa), eta haren lekuan beste kualifikazio akademiko bat duen pertsona bat kontratatzea erabaki zen. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duen otsailaren 24ko 16/2021 Foru Dekretuko 1. artikuluan ezartzen da amortizatu egingen dela Osasun Departamentuko lanpos-

tu bat, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko:

Osasuneko goi mailako teknikari lanpostu huts bat, funtzionarioen araubidekoa, A mailakoa, plantilla organikoan 67025 zenbakia duena.

16/2021 Foru Dekretuko 2. artikuluan, berriz, lanpostu bat sortu da Osasun Departamentuan, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Instituturako:

Osasun publikoko ikuskatzaile lanpostu huts bat, funtzionarioen araubidekoa, A mailakoa, plantilla organikoan 71987 zenbakia duena.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Ekonomiaren eta Profesionalen Kudeaketarako Zerbitzuko buruaren martxoaren 12ko 101/2021 Ebazpenak zehazten duenez, al baitariarena da osasun publikoko ikuskatzaile lanpostu hutsa -71987 zenbakia duena-.

Plantilla organikoaren aldaketa hori ez du ematen bat datorrenik Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko beste atal batzuetan baliatzen ari den diziplinartekotasunarekin.

Hori ikusita, honako hau jakin nahi dut:

- Zertan dira Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Elikagaien Segurtasunaren Ataleko lanpostuak? Bat al datoz Europako beste herrialde batzuetako eta beste autonomia erkidego batzuetako eginkizun bereko beste sail batzuekin?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, herritarrentzat Oinarrizko Osasun Laguntza eskuragarri dagoela bermatzeko neurriei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, herritarrentzat Oinarrizko Osasun Laguntza eskuragarri dagoela bermatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azaroaren 9ko 332E/2020 Foru Aginduaren bidez, Osasuneko kontseilariak Osasun

Zuzendaritza Nagusiari agindu zion Oinarrizko Osasun Laguntzaren egoerari eta arazoei buruzko analisia egin zezan, bai eta arazo horiek zuzentzeko eta oinarrizko osasun laguntza sendotzeko ekintza plan bat ere. Hori guztia martxoaren 16an (asteartea) aurkeztu zitzaigun Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean.

“COVID-19ak eragindako pandemia-agertokian Oinarrizko Osasun Laguntzak bizi duen egoeraren eta dauzkan erronken analisia” izeneko dokumentuan, “Nafarroako Oinarrizko eta Komunitateko Osasun Laguntzarako Estrategia 2019-2021” onesteko garatutakoaren analisi osagarria egiten da, COVID-19ak sektorean izandako ondorioak jasotzeko, bai eta Oinarrizko Osasun Laguntzaren jarduera berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen diren lan-ildoak zerrendatzeko ere.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

• Departamentuaren ustez, orain arte hartu diren neurriak aski al dira herritarrentzat Oinarrizko Osasun Laguntza eskuragarri dagoela bermatzeko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, Eutanasia arautzen duen Lege Organikoari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, eutanasia arautzen duen Lege Organikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarrirakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kon-

tseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Izapidetzen urtebete baino gehiago eman ondoren, 2021eko martxoaren 18an onetsi da Eutanasia arautzen duen Lege Organikoa; halatan, prestazio hori despenalizatzen duen munduko seigarren herrialdea da Espainia, eskubideetan aurrerabidea egiteko konpromisoa indartu bidean. Autonomia erkidego bakoitzak bere berme eta ebaluazio batzordea sortuko duela ezartzen du Espainiako legeak, legea nahiz legeak ezartzen dituen prozedurak errespetatzen direla egiaztatzeko alde aurretik eta kontrolatzeko ondoren. Legea hiru hilabete barru sartuko da indarrean.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu Eutanasia arautzen duen Lege Organikoa betetzeko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Lizarran 2021eko urtarrilaren 19an gertatutako ijitoen aurkako kasuari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, Lizarran 2021eko urtarrilaren 19an gertatutako ijitoen aurkako kasuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrirakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilari Eduardo Santos Itoiz jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lizarran 2021eko urtarrilaren 19an ijitoen aurka gertatutako kasu bat salatu zuten Gaz Kalók, Nafarroako SOS Arrazakeriak eta Nafarroako LABek. Nafarroako antolakunde horiek administrazio publikoei jabeldu zitzaizkien, jakiteko zer politika darabiltzaten diskriminazio-egoerak prebenitzeko eta erreparatzeko.

Kasu horri dagokionez, honako hau jakin nahi dugu:

- Departamentuak zer egin du kasu hau eza-gutu zenetik?

Iruñean, 2021eko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpresengana hurbiltzeko darabilen estrategiari buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpresengana hurbiltzeko darabilen strategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren estrategiaren barruan enpresengana hurbiltze aldera prospekzioa eta bitartekaritza sartzeak zer helburu bilatzen du?

Iruñean, 2021eko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, COVIDaren txertatze-pasaporteari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, COVIDaren txertatze-pasaporteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Foru Komunitatean nola ezarriko da Europako Batzordeak proposatzen duen COVIDaren txertatze-pasaportea?

Iruñean, 2021eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Mutiloako instalazio berrietan mantenduko diren Refenako langileei eta egiturari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Mutiloako instalazio berrietan mantenduko diren Refenako langileei eta egiturari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasuneko kontseilari Santos Induráinek eta Osasuneko zuzendari nagusi Carlos Artundok

hedabideei adierazi diete Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak koronabirusaren prebentzioaren estrategiaren baitan Refenan paratutako azpiegitura eta konplexu operatiboa desmuntatuko dituela, eta Mutiloan Foremek zeuzkan lokaltara eramanen dituela. Instalazio horiek Rural Kuxarenak dira, eta Nafarroako Gobernuari alokatuko dizkio. Aldaketa martxoan egitea aurreikusten da.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaile Gregorio Achuteguiak prentsaurreko batean esandakoaren arabera, arrazoi nagusia da Refena ez zegoela "erabat prestatuta bilatzen genuen helburua lortzeko"; batez ere, laneko arriskuen prebentzioari dagokionez. Hala ere, ez da inongo informaziotan zehazten zer kontingente zehatza paratu nahi den Foremenak izandako instalazioetan, ez eta zer eginkizun izanen dituen eta zer langile izango dituen ere.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Refenako egungo zer egitura eta plantilla mantenduko dira instalazio berrietan?

Iruñean, 2021eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren garapen hobezinerako prozeduren eta estrategien prestakuntza-mintegiari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren garapen hobezinerako prozeduren eta estrategien prestakuntza-mintegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren konfiguraziorako, berrikuntzarako eta jarraipene-

rako beharrezkoak diren elementuak eta edukiak sortzeari buruzko aholkuak emate aldera Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak eta José Manuel Álamo Candelariak sinatutako laguntza teknikoak zenbait ekintza jasotzen ditu; besteak beste, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren garapen hobezinerako prozeduren eta estrategien prestakuntza-mintegi bat.

1.- Hasierako proposamenean 16 orduko mintegi bat iragarri bazen ere, azkenean mintegia 20 ordukoa izanen da. Zergatik?

2.- Nafarroako Gobernuak adierazi zuen prestakuntza 20 ordukoa izanen zela, baina jardunaldia berez 12,5 ordukoa zen. Zergatik?

3.- Kontratuaren hasierako aurreikuspenean ezarritako gutxieneko orduak ez ziren bete. Zergatik?

4.- Ordaindu beharreko zenbatekoa murriztu al zen, kontratatutakoa baino prestakuntza laburragoa egin zelako?

5.- Zenbat pertsonak eman zuten izena mintegian?

6.- Prestakuntzako 20 orduen zenbat egiaztagiri egin ziren?

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Nafarroan zenbait autobiatako trafikoaren gaineko datuei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan zenbait autobiatako trafikoaren gaineko datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren 2021eko otsailaren 11ko prentsa-oharraren bidez 17,6 milioi estra iragarri ziren errepideetan 13 obra egiteko –Mugar-tea bizitegi-eremurako sarbide berria Ekialdeko Ingurabidean (PA-30); Ekialdeko Ingurabidearen (PA-30) eta Mendebaldekoaren (A-15) arteko lotunea hobetzea; pantaila akustikoak paratzea Ezkaban, Mendillorri eta Berriozarren, Ekialdeko Ingurabidearen (PA-30) zenbait kilometro-puntutan;

NA-700 bikoiztea, Mendebaldeko Ingurabideko Arazuriko lotunearen eta Orkoiengo saihebidearen artean; pasabide berri bat Itaroan; Mélida-Caparroso errepidea berritzeko bultzada; Tuterako zubia konpontzea; Uxueko ezponda egonkortzea; Elizondoko polizia-etxerako sarbide berria, eta biribilgune berriak Elon eta Murchanten. Prentsa-oharrean honako hau esaten da:

“Jarduketa horiek egin ahal izanen dira jaitsi egin delako autobietako kanonak direla-eta ordaindu beharreko zenbatekoa, zeina 2021erako ekitaldirako aurrekontu-partida horietan konpromisoak ezarri ondotik atera baita, aurreko ekitaldiko trafikoaren datu errealak ezagututa”.

Horri buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

Lehena. 2020ko ekitaldiko trafikoaren datu errealak, hilabetez hilabete, autobia horietan 2019ko ekitaldian izandako trafikoaren datu errealekin alderatuta.

Bigarrena. Zer metodo eta mekanismo baliatzen dira 2019ko eta 2020ko ekitaldietako trafikoaren datu errealak zehazteko?

Hirugarrena. Zein da, zehatz-mehatz, autobietako kanonak direla-eta egindako abonamenduen eta autobia horietako bakoitzean 2019an eta 2020an izandako trafiko errealaren artean dagoen harreman zuzena?

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 Planeko gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 Planeko gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

2021eko martxoaren 16ko 60. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren otsailaren 16ko 27E/2021 Foru Agindua argitaratu zen. Horren bidez, 2021eko Hondakinen Funtsaren banaketa onetsi zen.

Foru aginduko "Jarduketa orokorrak eta ingurumeneko larrialdiak" atalaren arabera, 170.000,00 euro erabiliko dira azterketa eta lan teknikoak egiteko, 164.515 euro trazabilitate eta kontrol sistemen zuzkidurarako, karakterizazioak eta datuen teletramitazioak egiteko, eta gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemarako.

Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 Planak gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistema jasotzen du, zeina hurrengo ekintza honetan islatzen baita: A.P.LE02. I 1 "Estatuan gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemak arautzeko eta ezartzeko balizko ekimenen inplikazioak analizatzea eta Nafarroan gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemen erreferentziatzko esperientziak ezartzearen bideragarritasuna aztertzea".

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

1.- Departamentuak zer jarduketa aurreikusten du gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemarako 164.515 euro horien barruan?

2.- 164.515 euro horietako zenbat aurreikusten du gastatzea gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemarekin lotutako jarduketa horietan?

3.- Departamentuak zer analisi egin du, Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 Plana onetsi zenetik, estatuan gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemak arautzeko eta ezartzeko balizko ekimenen inplikazioei dagokienez?

4.- Departamentuak noizko aurreikusten du egitea Nafarroan gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemen erreferentziatzko esperientziak ezartzearen bideragarritasunaren gaineko azterketa?

5.- Gordailu, itzulketa eta berrerabilera sistemen erreferentziatzko esperientziak ezartzearen bideragarritasunaren gaineko azterketa gorabehera, Nafarroan une honetan ezar al liteke bilketa-sistema hori, baldin eta toki entitateren batek edo operadore pribaturen batek bultzatu nahi izanen balu? Departamentuaren baimena beharko luke?

Iruñean, 2021eko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, gezurren aurkako eta albiste egiaztatuen berri ematearen aldeko ekintza zuzeneko proposamen bat taxutzeari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, gezurren aurkako eta albiste egiaztatuen berri ematearen aldeko ekintza zuzeneko proposamen bat taxutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legegintzaldia hasi zenez geroztik zer egin da gezurren aurkako eta inklusioa eta pluraltasuna bezalako auzien balioa nabarmentzen dituzten albiste egiaztatuen berri ematearen aldeko ekintza zuzeneko proposamen bat taxutzeko?

Horri buruzko lanik egin al da Unibertsitateko Departamentuarekin lankidetzan?

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, etxebizitza babestuen eroslehentasun-eskubideari buruzkoa.

JOSÉ LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko galdera, etxebizitza babestuen eroslehentasun-eskubideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan

Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Kasu erreal baten berri izan dugu, non etxebizitza babestu baten jabe den familia batek bizilekuz aldatzeko prozesua hasi baitu eta, ondorioz, haren etxebizitza saltzeko eskaintza egin baita (Etxebizitza Departamentuari hori jakinarazita), baina hori egin eta gero ezin izan baitu etxebizitza berria hartu saltzaileak edo errentatzaileak atzera egin duelako, halako moduan non etxebizitzaren jabeak eta haren familiak babesgabetasun egoera bizi baitute, ezin dutelako etxebizitza-aldaketa egin eta, aldi berean, haien jabetzakoa eroslehentasun-prozedura betean dagoelako.

Etxebizitza Departamentuak zer konponbide planteatu du baldin eta jakiten badu, behin

eroslehentasun-eskubidea baliatzeko prozedura hasita, etxebizitza babestu baten jabeak bere etxebizitza gal dezakeela, berari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik ezin delako etxebizitza babestuaren salmenta-jakinazpena eragin zuen etxebizitza-aldaketa egin eta, ondorioz, Nafarroa-

ko Gobernuaren aldeko eroslehentasun-eskubidea sortu delako?

Iruñean, 2021eko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

Galdera, Agoitzen industria-lurzorua erosteari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, Agoitzen industria-lurzorua erosteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsaren bitartez, industria-lurzoruko 30.000 metro koadro erosi berri ditu Agoitzen; lurzoru hori, ordura arte, finantza-erakundeek jabetzakoa zen.

Operazio horren xedea da, Gobernuaren beraren esanetan, langabeziak horrenbeste zigortutako Nafarroako eremu hori biziberritzea. Agoitzen oraindik dago industria-lurzoru handi bat finantza-erakundeek jabetzakoa dena.

Horri buruz, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

- Gobernuak ba al du Agoitzen industria-lurzoru gehiago erosteko asmorik? zein epetan?

- Hala baldin bada, zer lurzoru izanen litzateke zehatz-mehatz?

- Nafarroako Gobernuak zer erabilera-plan edo -aurreikuspen darabil gogoan jada erositako industria-lurzorurako edo laster erositako duenerako? zein epetan?

Iruñean, 2021eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Siemens Gamesaren Agoizko industria-instalazioei buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, Siemens Gamesaren Agoizko industria-instalazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan udan —zehazki, 2020ko uztailean—, Siemens Gamesa enpresak iragarri zuen Agoizko lantegia ixteko asmoa zuela; horrek 239 lanpostu suntsitzea eta lantegiak hartzen zituen nabea eta instalazioak industria-jarduerarik gabe uztea ekarriko luke. Orain dela gutxi, Nordex Acciona enpresak adierazi du instalazio horietako 8.000 metro koadro inguru alokatzeko asmoa duela, haize-sorgailuen palak pintatzeko eta bukatzeko operazioak egiteko herrian.

Horri buruz, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

- Gobernuak ba al dauka Nordex Accionak erakutsitako interes horren berri?

- Gobernuak ezagutzen al du Siemens Gamesak Agoitzen hartzen zituen instalazioetarako etorkizuneko proiekturik?

- Baiezkoan, proiektu horietakoren batek lanposturik sortuko al luke Agoitzen? Zenbat?

Iruñean, 2021eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoa zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari (Google tasa) eta finantza-transakzioen gaineko zergari (Tobin tasa) egokitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hitzarmen Ekonomikoa zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari (Google tasa) eta finantza-transakzioen gaineko zergari (Tobin tasa) egokitzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 22ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-21/PES-00020 galdera idatzia aurkeztu du —2021eko urtarrilaren 18ko 432 irteera-zenbakia du Parlamentuan—. Haxe da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Zure galderako sarrera-hitzetan diozun bezala, Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari (Google Tasa) buruzko urriaren 15eko 4/2020 Legearen azken xedapenetako bosgarrenak eta Finantza-transakzioen gaineko zergari (Tobin Tasa) buruzko urriaren 15eko 5/2020 Legearen azken xedapenetako laugarrenak —bi lege horiek urriaren 16ko EAOn argitaratu ziren— araupetze bera

ezartzen dute, alegia, bi lege horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik hiru hilabeteko epean Nafarroarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren Batzordea bilduko dela Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren egokitzapena adosteko, hitzarmen hori onetsi zuen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen 6. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hiru hilabeteko epea amaitzear dagoela, hau galdetzen duzu:

– Zer harreman izan dira Nafarroako eta Estatuko administrazioetako ordezkarien artean bi zerga horiei aplikatzekoa zaien konexio-puntua adosteko, bi zerga horiek Nafarroan aplikatu ahal izateko Hitzarmen Ekonomikoan beharrezkoa den aldaketa egite aldera?

2020ko urriaren 20an, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idazki bat igorri zion Ogasuneko estatu-idazkariari eta bertan eskatu zion lehenbait-lehen ekiteko harremanei Hitzarmeneko Koordinazio Batzordearen deialdia egin ahal izateko, zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergaren eta finantza-transakzioen gaineko zergaren harmonizazioa epean egin zedin.

Gero, Nafarroako Foru Ogasuneko kudeatzaileak, zerga horien harmonizazioa adosteko abiapuntu gisa, konexio-puntuaren hasierako proposamen bat bidali zion Autonomia Erkidego eta Toki Entitateekiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari.

Duela gutxi eskatu da bilera bat egiteko Ogasuneko ministroarekin eta haren lantaldearekin, eta aztergaien zerrendan jarri da zerga berriak itundu ahal izateko Hitzarmen Ekonomikoan egin behar den aldaketa hori.

Bestalde, Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa adosteko hiru hilabeteko epea ezarri bazen ere, zerga berriak lehenengoz aplikatzen diren 2021eko ekitaldi honetan apirilean aurkeztu eta ordaindu behar dira finantza-transakzioen gaineko zergaren urtarrileko, otsaileko eta martxoko autolikidazioak, eta uztailean egin behar dira zerbitzu digitalen gaineko zergaren 2021eko lehen eta bigarren hiruhilekoei dagozkien ordainketak.

– Gobernuak uste du aipatu legeetan ezarritako hiru hilabeteko epean lortuko dela administrazioen arteko akordiorik?

Ez.

– Negoziazioak zerga horiek indarrean sartu eta haratago luzatuko balira, lortu beharreko akordioak jaso beharko lituzke akordioa lortu aurretiko zerga-egitateetatik eratorritako administrazioen arteko ondorioak?

2015ean onetsitako aurreko aldatetarekin gertatu zen bezala, akordioan jaso beharko da noiztik aurrera joko den Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa aplikatzekoa dela adostutako zerga berriei dagokienez.

– Gobernuak noiz bidaliko du edo ditu Parlamentura zerga horiek Nafarroako esparruan arautuko dituen foru lege proiektua edo arautuko dituzten foru lege proiektuak?

Nafarroako Gobernua, eraginkortasuna eta segurtasun juridikoa helburu, lanean ari da bi zeregin uztartzeko: zerga berriak Estatuarekin harmonizatzea, eta tributu figura berri horiek arautzea lege proiektuen bitartez.

– Gobernuaren kalkuluen arabera, zenbat diru bilduko da zerga horiek aplikatuta?

Espainiako Gobernuak kalkulatu du zerga berri horien bidez 2021ean 968 milioi euro bildu litezkeela zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergaren kasuan eta 850 milioi euro finantza-transakzioen gaineko zergaren kasuan.

Foru Komunitateak zerga horien bidez lor dezakeen zenbatekoa kargapeko zerga-egitatearen mendean dago, eta, halaber, zerga bakoitzerako ezartzen den konexio-puntuaren mendean. Horren harira, Hitzarmen Ekonomikoak zenbait erreferentzia ezartzen ditu Nafarroako zerga-bilketa zenbatesteko erabil daitezkeenak, hala nola egozpen indizea (Estatuko guztizkoaren % 1,6) edo BEZaren doikuntzari aplikatu beharreko kontsumo erlatiboaren indizea (Estatuko guztizkoaren % 1,76). Alderdien artean finkatuko den akordioaren zain egon behar, ordea, zenbatespen zehatzagoa egin ahal izateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, eskola-mapa aldatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eskola-mapa aldatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 22ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako Bakartxo Ruiz Jaso andreak eginiko 10-21/00021 zenbakiko galdera idatzia dela eta, Hezkuntzako kontseilariak honako honen berri ematen du:

• Nafarroako Gobernuaren 2021erako araugintza planean ez dira sartzen foru aginduaren maila duten arauak. Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuan eskola-mapa dakarren eranskina foru agindu bidez aldatuko da, aipatu foru dekretuaren 2.2 artikulua ahalbidetzen duen moduan.

• Eskola-mapa aldatzeko foru agindu proiektua 2021eko otsailaren 10ean argitaratu da Gobernu Irekiaren Atarian, parte hartzearen prozesuaren atalean. Aurreikusten da hura apirilean onestea behin betiko, egin beharreko izapide administratibo guztiak bukatutakoan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 12an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, 0-3 zikloari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 0-3 zikloari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 22ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Bakartxo Ruiz Jaso andreak eginiko 10-21/00022 zenbakiko galdera idatzia dela eta, Hezkuntzako kontseilariak honako honen berri ematen du:

1. 1. galdera:

Haur Eskolen Zerbitzu espezifikoa sortzeari dagokionez, Hezkuntza Departamentua lanean ari da bere egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 267/2019 Foru Dekretuaren aldaketa bate-

an, bere organigraman Haur Eskolen Zerbitzua gehitzeko.

2. 2. galdera:

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak kudeatzen dituen haur-eskolen titulartasun aldaketari dagokionez, hau adierazi behar dugu:

Nafarroako Gobernuaren eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren aurrekontu-konpromisoari buruzko akordioak honako hau jasotzen du 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Lege proiektua dela eta:

0-3 zikloa. Gobernuak berretsi egiten du legegintzaldi hau Haur Hezkuntzako ziklo hori duintzeko gako izan dadin hartutako konpromisoa. Horregatik, agintzen du:

– Departamentuaren barruan zerbitzu bat sortuko dela, halako moldez non departamentu arteko lana bultzatu ahalko den inplikaturako eragileekin batera. Zerbitzu horrek egiturari, langileei, jantokiari eta abarri buruzko urratsak eta arau aldaketak antolatuko ditu, eta prozesurako egute-

gia jarriko du, Eskubide Sozialetako Departamentuaren haur eskolak Hezkuntza Departamentuaren mendekoak izatera igaro daitezzen 2021-2022 ikasturtean.

3. 3. galdera:

0-3 urteko haurrak eskolatzen dituzten Nafarroako Gobernuaren ikastetxeetan plazak eskaintzea Eskubide Sozialetako Departamentuaren eskumena da.

Halaber, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 17ko 538/2020 Ebazpenak, funts publikoak jasotzen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2021-2022 ikasturtean haurrak onartzeko prozedura onesten duenak, hau ezartzen du:

“Toki entitateek Hezkuntza Departamentuari jakinaraziko diote zenbat hizkuntza modalitate eta unitate aurreikusten duten eskainiko direla haur-eskola bakoitzean 2021-2022 ikasturtean, eta zertan oinarritzen den aurreikuspen hori”.

Haur-eskola bakoitzean eskainiko diren unitateen kopuruaren eta hizkuntza modalitatearen

aurreikuspen hori jaso ondoren, Hezkuntza Departamentuak aztertu egingen du eskaintza, eta irizpide hauei jarraituko die hura onesteko:

– 2019-2023 bitarteko bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrera-koirako Programa Akordioan, “hizkuntza-eredu bat baino gehiago barne hartzen duten ikastetxeak” sustatuko direla azaltzen da 3.1 ataleko 32. puntuan.

– Eskolaldi mota, adin-tarteak eta eskainitako gehieneko unitate kopurua gainbegiratzea, haur-eskola sortzeko hitzarmenean jasotakoa bete dezaten.

– Haur-eskola bateko ikasleei hizkuntza-ereduaren jarraitutasuna bermatzea, eskola berean, Haur Hezkuntzako lehen zikloan zehar.

– Haur-eskoletako ikasleen hizkuntza-ereduari jarraipena ematea Eskola Mapako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 12an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, espetxe-osasunaren eskumena hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, espetxe-osasunaren eskumena hartzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 22ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00023), Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

“2020ko azaroaren 26an, Madrilera egindako bidaletako batean, kontseilariak berak publikoki adierazi zuen Nafarroak espetxe-osasunaren eskumena «brehala» hartuko zuela bere gain. Zer esan nahi du kontseilariarentzat «brehala» hitzak?”

Hona hemen erantzuna:

2019an egindako informazio-eskaera batean adierazi zenuen ezen, zerbait “laster” amaituko dela iragarri gero, hilabete iragan baino lehen amaitu behar dela nahitaez. Oraingoan “brehala” zer den galdetzen didazu; berriz ere hizkuntza kontu bat, eta honek ere zerikusia du denbora tar-teekin.

Ez dakit zergatik uste duzun denborazko adberbioetan aditua naizela edo, behintzat, badudala zeresanik hizkuntza kontu hauetan. Hizkuntzaren arloan badaude beste iturri batzuk ni baino askoz fidagarriagoak.

Gogoeta horietatik harago, hedabideen aurreko agerraldi batean azaldu zen eskumenak brehala hartuko zirela, Espetxe Erakundearen idazkari nagusiak izandako bilera baten ondoren, eta kontseilari honek termino hori errepikatu zuen, bi aldeek borondate politiko saihestezina adierazi nahian, zeinean Nafarroako Gobernuahalegin guztiak egiten ari baita.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako Kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Brexitak Erasmus programan dauzkan ondorioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Brexitak Erasmus programan dauzkan ondorioei buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak

galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Brexitak Erasmus programan izanen dituen ondorioei buruz (10-21/PES-00024). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Nolako ondorioak izanen ditu Brexitak Erasmus programan eta nola eraginen die Nafarroako unibertsitate-ikasleei?

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, Erresuma Batua hirugarren herrialdeztat hartuko da EBko programetan sartzeari dagokionez, Erasmus+ programa barne dela. 2020aren ondorengo programetan Erresuma Batuak parte hartuko ote duen, Europar Batasunaren eta Erresuma Batuaren

arteko etorkizuneko harremani buruzko negoziazio orokorren emaitzaren menpean dago.

Irteera Akordioak bide ematen du programan parte hartzen duten herrialdeetako goi mailako hezkuntzako erakundeek eta gainerako erakundeek jarrai dezaten ikasle eta langileak Erresuma Batura bidaltzen Erasmus+ programako mugigarritasunetarako, 2019ko eta 2020ko deialdietako funtsak erabiliz, harik eta proiektuak azkendu edo funtsak agortu arte.

2016an Brexita bozkatu zenetik, Erresuma Batuko unibertsitateak Europako unibertsitateekin elkarlanean aritzeko sareak sustatzen ari dira. Errektoreen konferentziak (CRUE) adierazitakoaren arabera, alde biko akordio horietan zehaztuko dira trukeetarako baldintza berariazkoak eta, hala badagokio, finantzaketa akordio berariazkoak.

Unibertsitate gehienek beren aurrekontuetan bekak finantzatzen dituzte Erasmus programatik kanpoko helmugak dituzten mugikortasun-progra-

metarako, eta aztertzen ari dira Erresuma Batuko helmugak ere sartzea, beste aukera batzuen artean.

Aztergai duten beste aukera bat da lankidetzahitzarmenak sinatzea elkarrekikotasun ekonomiko eta akademikoaren araubidean (ikasleak bere jatorrizko unibertsitatean ordaintzen du, eta beste unibertsitatean ikasitako irakasgaiak aitortzen zaizkio). Oraingoan, badirudi Irlandako helmugak izanen direla trukeetako ikasleen kopurua handituko dutenak.

Nafarroako ikasleei dagokienez, ezin dira eman datu osoak, unibertsitate bakoitzak bere aldetik egiten dituelako kudeaketak bere ikasleek Erasmus programan parte har dezaten:

1. Nafarroako Gobernuak nazioarteko mugigarritasunerako laguntza osagarriak emateko egindako deialdia. Beren mugigarritasunak 2019-2020 ikasturtean egin zituzten ikasleenak dira azken datu eskuragarriak.

Erresuma Batura joateko laguntzak eskatu dituzten Nafarroako ikasleak	2019-20	2018-19	2017-18
NUP	5	5	3
Nafarroako Unibertsitatea	14	18	12
Gainerako unibertsitateak	6	11	7
GUZTIRA	25	34	22

2. Erasmus programan Erresuma Batura joateko NUPen hautatutako ikasleak

	2021-2022	2020-2021	2019-2020
NUP	3	4	5

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

Galdera, Bertizko Parke Naturaleko basoko pistei eta bideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Bertizko Parke Naturaleko basoko pistei eta bideei buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Bertizko Parke Naturaleko basoko pista eta bideei buruz (10-21-PES-00025). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Hiru hilabete iragan ondoren zergatik daude oraindik sarbideak itxita eta zuhaitzak kentzeko eginkizuna bete gabe?

2. Zer lan enkargatu da, eta noiz, egoera konpontze aldera?

Kronologikoki azalduko da zer jarduketa egin diren Bertizko Jaurerriko Parke Naturalean 2020ko urriaren 20ko haizeteaz geroztik.

2020ko urriaren 20an haize gogorrak kalte handiak egin zituen Bertizko Jaurerriko Parke Naturalean. Zuhaitz asko bota zituen eta beste asko kolokan gelditu ziren, erortzeko zorian hainbat tokitan. Parke Naturaleko sarreraren eta baso helduaren arteko eremua izan zen kaltetuena.

Zuhaitz eroriek Parke Naturaleko pista eta bidezidor nagusiak eten zituzten, igarotzea eragoztiz. Pista horiek naturagune babestu horretako hainbat bazterretara eta jendea bizi den baserrietara iristeko erabiltzen dira.

Horregatik, Parke Naturaleko zuzendaritzak beharrezkotzat jo zuen enpresa bat berehala kontratatzea basoko pista eta bidezidorrak garbitzeko lanei ekiteko. Hala, haizetea izan eta biharramunean, Naturaguneen eta Espezie Babestuen Ataleko teknikariek basozainekin eta Parkeko langileekin batera kalteak ebaluatzeko lehen bisita egin zuten, eta baso lanetako enpresa bati eskatu zitzaion presako jarduketei ekiteko, pista eta bide-

zidor nagusiak garbitu eta trabarik gabe uzteko. Egun berean eta hurrengo hiru egunetan lanean aritu ziren enpresa hori eta Parkeko mantentze-lanetako langileak, bideak trabarik gabe utzi arte.

Gainera, hurrengo hiru asteetan beste enpresa bat aritu zen goian aipatutako lanari beste jorratu bat ematen bidezidor guztietan, eroritako zuhaitz eta adar guzti-guztiak kenduz. Pare bat tokitan zuhaitz eroriak bertan utzi zituzten, makina handiak behar zirelako. Horrenbestez, basoko pistak eta bidezidor nagusi gehienak garbi uztea lortu zen.

Bestalde, basoan lan horiek egiten ziren bitartean, zutik baina kolokan gelditutako zuhaitzen egoera baloratu zen Parkeko sarrera inguruan, bisitari gehien jasotzen dituen erabilera publikoko eremuan (lorategi historiko-artistikoa, aparkalekua eta haurrentzako jolas-eremua). Horretarako, Nafarroako Gobernuko Basozainen Zerbitzuari atxikitako Nafarroako Altuerako Esku-hartze Taldearen (NAET) laguntza eskatu zen. Talde horrek lehendabizi txosten bat eman zuen 2020ko urriaren 23an, zuhaitzen egoera baloratzeko eta esku-hartze proposamenak egiteko. Gomendatu zuten ezein ekipamendu ez irekitzea jendearentzat, zuhaitz eta adarrak erortzeko arrisku handia zegoelako. Gerora, urriaren 26an, mantentze-lanak egin ondoren, NAETeko langileek beste txosten bat eman zuten eta adierazi zuten aparkalekua, lorategi historiko-artistikoa eta haurren jolas-eremua irekitzen ahal zirela bisitarien segurtasuna bermatuta. Beraz, urriaren 31n, larunbata, berriz ireki zen eremu hori.

Basoari dagokionez, pistetan eta bidezidor nagusi gehienetan ibiltzeko traba egiten zuten zuhaitzak kendu egin ziren, lehen azaldu bezala, eta hasierako lan horien ondoren beste bisita bat egin zuten Naturaguneen eta Espezie Babestuen Ataleko teknikariek eta basozainek elkarrekin, eta beharrezkoa iruditu zitzaien zuhaitzia hobetzeko beste jarduketa batzuk egitea, hain zuzen ere basoko bideen eta beste ekipamendu batzuen inguruetan eroritako zuhaitzak kentzea eta Parke Naturaleko bide edo ekipamendu horietarantz erortzeko arriskua zuten zuhaitz ezegonkorrak bota eta ateratzea.

Hala, erabaki zen basoa bisitariarentzat itxita uztea, zeren eta, pistak eta bidezidor gehienak zabaltzeko moduan egon arren, artean oso han-

dia baitzen zuhaitz eta adarrak zona horietara erortzeko arriskua.

Egiteko zegoen lan bolumena ikusita, erabaki zen beharrezkoa zela zonaka eta zehatz-mehatz planifikatu eta baloratzea zer jarduketa egin behar ziren, eremu babestu horretako baldintzatzaile guztiak kontuan hartuz. Helburu nagusia segurtasuna zen, eta aldi berean ahalik eta eragin txikiena izatea ingurumenean, betiere gogoan izanik Parke Naturalean egiten diren jarduera guztiak araututa daudela 68/2008 Foru Dekretuaren bidez, zeinak Bertizko Jaureria Zainketa Bereziko Eremu deklaratu eta hura Erabili eta Kudeatzeko III. Plan Zuzentzailea onesten baitu.

Plan horrek basoan beharrezkoak diren kontserbazio eta hobekuntza jarduketak biltzen ditu. Naturaguneen eta Espezie Babestuen Atalak eta Basozainen Zerbitzuak prestatu dute elkarlanean. Otsaileko lehen astean zenbait enpresarengana jo da planean jasotako lanak egiteko proposamenak aurkez ditzaten, egokiena aukeratu eta lanei lehenbailehen ekin ahal izateko.

Bestalde, naturagune babestuko bisitariei begira, iragan abenduaren 25az geroztik, basoa ixteak ohiko edo noizbehinkako erabiltzaile askori ekarri

dizkien eragozpenak konpentsatze aldera, Parke Naturaleko zuzendaritzak erabaki zuen doan sartzan uztea lorategi historiko-artistikoan, harik eta berriz zabaltzeko modua izan arte, osorik edo partez, bisitarien segurtasuna bermatuta.

Azkenik, esan behar da erabiltzaileei une oro egoeraren eta eboluzioaren berri eman zaiela Parkean bertan erabilera publikoko monitoreen bidez, baita Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Facebookeko kontuan eta naturagune babestuaren web-orrian ere.

3. Noizko aurreikusten da Bertizko Parke Naturaleko basoko pista eta bideak berriz irekitzea?

Arestian aipatutako jarduketa planean jasotako lanak handi samarrak direnez, lehentasunak ezarriko dira bisitari gehien ibiltzen diren basoko zonetatik hasteko. Horrela, alde horiek Aste Santurako zabaltzeko ahalegina egingen da, eguraldiak eta lan baldintzek aukera ematen badute. Zona hauek lirateke: Erreparatzea bidea, Suspiro, Iturburu eta Irretarazu bideak eta pista nagusia.

Iruñean, 2021eko otsailaren 19an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López